Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

## FORU AGINDUA

2024ko abenduaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (248 zk.) argitaratu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025. urterako Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 20ko 4/2024 Foru Araua. Aurrekontu horretan jasotzen dira 2025. urterako dirulaguntza izendunak, eta Kultura Ondareko Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuen artean Beasaingo Andre Mariaren Zeruratzea Parrokiaren aldeko dirulaguntza izenduna jasota dago 1 1010.110.781.00.07 2025 partidaren kargura.

Entitate interesdunak aipatutako dirulaguntza eskaera bidali du, parrokiako erretaula nagusia kontserbatzeko eta zaharberritzeko.

Dirulaguntza izenduna izatearen ondorioz, hori ematea departamentuko foru diputatuari dagokio, 6/05 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40.4.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horri dagokionez, entitateak egiaztatu du betetzen dituela 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan, eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 26.3 artikuluan, dirulaguntzak jasotzeko ezartzen dituzten baldintzak.

*Azaldutako guztia kontuan hartuta eta Kultura Ondareko Zuzendaritza Nagusiaren txosten teknikoa ikusirik, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol foru diputatuak,*

## EBAZTEN DU

**Lehenengo.**- Ematea Beasaingo Andre Mariaren Zeruratzea Parrokiari (R2000238B) 121.000 euroko dirulaguntza izenduna, parrokiako erretaula nagusia kontserbatzeko eta zaharberritzeko (esp. zk.: 2025-CU30-000024-01).

## ORDEN FORAL

En el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 248 de 26 de diciembre de 2024 se ha publicado la Norma Foral 4/2024, de 20 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2025. Dicho Presupuesto incluye las partidas presupuestarias del año 2025 de carácter nominativo, contemplando entre los presupuestos de la Dirección General de Patrimonio Cultural una subvención nominativa a favor de la Parroquia Asunción Nuestra Señora de Beasain, con cargo a la partida 1 1010.110.781.00.07 2025.

La entidad interesada ha enviado la solicitud de la citada subvención, con destino a conservación y restauración del retablo mayor de la parroquia.

El carácter nominativo de la subvención determina que su concesión corresponda a esta diputada foral, conforme a lo dispuesto en el artículo 40.4.b) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En este sentido, la entidad ha acreditado que cumple los requisitos que para la obtención de subvenciones se indican en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para igualdad de mujeres y hombres.

*Teniendo en cuenta todo lo anterior y a la vista del informe técnico de la Dirección General de Patrimonio Cultural, la diputada foral de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes,*

## RESUELVE

**Primero.**- Conceder a la Parroquia Asunción Nuestra Señora de Beasain (R2000238B) una subvención nominativa por importe de 121.000 euros, con destino a la conservación y restauración del retablo mayor de la parroquia (Nº de expediente: 2025-CU30-000024-01).

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

**Bigarren**.- Baimentzea eta xedatzea entitate onuradunaren alde aipatutako gastua, aurrekontuko 1 1010.110.781.00.07 2025 partidaren kargura.

**Hirugarren**.- Emandako dirulaguntza dagozkion administrazio-izapideak egin ondoren ordainduko da, behin proiektua gauzatu eta egindako inbertsioa eta gastua justifikatu ondoren, honako agiriak aurkezten direnean:

a) Kontu zurigarria, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak 49. artikuluan xedatzen duen edukiaren arabera.

Ordainketa partzialak egin ahal izango dira, administrazio-izapide egokiak egin ondoren, ziurtagiri edo justifikazio nahikoaren bidez.

Aurreko dokumentazio hori aurkezteko epea 2025eko abenduaren 12an bukatuko da.

**Laugarren**.- Entitate onuradunak honako baldintza hauek ere bete beharko ditu:

a. Eman den xederako erabiltzea dirulaguntza.

b. Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea helburu berdinarekin beste administrazio publiko batzuek, edo entitate publiko edo pribatuek, nazional edo nazioartekoek, emandako dirulaguntzak.

c. Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoaz dagokion publizitatea egitea, laguntza eman duen entitatearen irudi instituzionala sartuz; finantzaketa publikoari buruzko legendak jarriz karteletan, plaka oroigarrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan zein hedabideetan egindako aipamenetan.

**Segundo**.- Autorizar y disponer a favor de la entidad beneficiaria el citado gasto con cargo a la partida 1 1010.110.781.00.07 2025.

**Tercero**.- La cantidad concedida se abonará previos los trámites administrativos oportunos, una vez ejecutado el proyecto y justificada la inversión y gasto realizado, previa presentación de la documentación que se relaciona a continuación:

a) Cuenta justificativa con el contenido establecido en el artículo 49 del Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

Se podrán realizar abonos parciales, previos los trámites administrativos oportunos, mediante certificación o justificación suficiente.

El plazo de presentación de esta documentación finalizará el 12 de diciembre de 2025.

**Cuarto**.- Asimismo, la entidad beneficiaria deberá cumplir las siguientes condiciones:

a. Destinar la subvención al fin para el que ha sido concedida.

b. Comunicar a esta Diputación Foral la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, otorgadas por otras administraciones públicas o por entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales.

c. Dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en los medios de comunicación.

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

d. Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dituen ikuskatze lanak, eta 2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Kontuen Auzitegiko legeriak aurreikusitako finantza kontrolak eta, obrak kontrolatu eta horien jarraipena egiteko, halaber, dirulaguntza jasotako jarduerak bete eta garatzeari buruz eska dakizkiokeen informazio osagarri guztia ematea.

e. Eskuratutako dirulaguntzen erabilera egiaztatzen duten agiriak gordetzea, egiaztapen eta ikuskapen lanak egin dakizkiokeen neurrian.

f. Jasotako funtsak itzultzea erabaki honen hurrengo atalean aurreikusitako kasuetan.

g. Foru Administrazioak eta haren sektore publikoko erakundeek enpresa eta erakunde pribatuei emandako laguntzei eta dirulaguntzei zein sustapen neurri horien onuradun diren beste organismoei aplikatu beharreko Jokabide Kode eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruarekiko atxikimendua adieraztea ezinbesteko betekizuna eta baldintza da laguntza edo dirulaguntza hau eman ahal izateko. Horrenbestez, https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema helbidean dagoen atxikimendu adierazpena erantsi beharko zaio aurkeztu beharreko bestelako dokumentazioari.

h. Diruz lagundutako proiektuaren aurkezpen publiko eta sustapeneko ekitaldietan eta, hala balitz, lankidetzaren emaitzaren azken balantzean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko ordezkari bat egongo da.

i. Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako jardueraren inguruko dokumentu, euskarri, ikastaro, publizitate eta ekitaldi publiko guztietan, bi hizkuntza ofizialen berdintasun erregimenari eutsiz.

d. Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por la Diputación Foral de Gipuzkoa, a las actuaciones de control financiero previstas en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, y a las actuaciones de seguimiento de las obras, facilitando cuanta información complementaria le sea solicitada en relación con el desarrollo y ejecución de las actuaciones subvencionadas.

e. Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación e inspección.

f. Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en apartado siguiente del presente acuerdo.

g. La adhesión al Código de Conducta y Marco de integridad institucional aplicable a ayudas y subvenciones otorgadas por la Administración Foral y por las entidades de su sector público a empresas y entidades privadas, así como al resto de organismos beneficiarios de tales medidas de fomento, es requisito indispensable y presupuesto para la concesión de la presente ayuda o subvención, debiendo adjuntarse la correspondiente declaración de adhesión disponible en http://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/sistema-de-integridad entre la documentación a presentar.

h. En todos los actos de presentación pública y de promoción del proyecto subvencionado y, en su caso, del balance final del resultado de la colaboración figurará un/una representante del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

i. Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la CAPV en cuantos documentos, soportes, cursos, publicidad y actos públicos se refieran a la actividad subvencionada, manteniendo un régimen de igualdad de las dos lenguas oficiales.

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

j. Hizkeraren berdintasunezko erabilera bermatzea dirulaguntza honen xede diren dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo materialetan, baztertzea emakumeen irudi diskriminatzaileak, eta sustatzea irudietan berdintasun baloreak, aniztasuna, rolen pluraltasuna eta erantzunkidetasuna.

k. Diruz lagundutako proiektuaren xehetasunak eta norainokoa aurkeztea Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko titularrarekin batera –eta proiektuak dituen gainerako kideekin, hala dagokionean-, bi alderdiek adostutako modu eta formatuak erabilita. Halaber, nahiz eta Aldundiko beste kide batzuek parte hartzeko aukera izan, dirulaguntza ematen duen departamentuaren ordezkari bat izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria programa honen sustapenari lotutako ekitaldi formaletan. Gainera, lankidetzaren edo proiektuaren emaitzari buruzko balantze publikoa egitearen egokitasuna aztertuko da programa bukatzen denean.

l. Oro har, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 13. artikuluan ezartzen dituen betebehar guztiak betetzea.

**Bosgarren.-** Jasotako diru kopuruak itzuli egin beharko dira, eta berandutza interesa eskatuko da dirulaguntza ordaintzen denetik itzuli beharra erabakitzen denera arte, baldin eta kasu hauek gertatzen badira:

1. Dirulaguntza ez erabiltzea eman den xederako.

2. Egiaztatzeko betebeharra ez betetzea edo behar adina ez egiaztatzea.

3. Aurreko ataleko e) letran aipatutako egiaztapenei eta finantza kontrolei aurka egitea, haiek ez egiteko aitzakiak jartzea, trabak jartzea, edo uko egitea.

4. Oro har, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 35. artikuluan dirulaguntzak itzultzeko ezartzen dituen kasuetako bat gertatzen denean.

Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

j. Garantizar que en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales referidos al objeto de la subvención se emplee un uso igualitario del lenguaje, se evite cualquier imagen discriminatoria de las mujeres y se fomente una imagen con valores de igualdad, diversidad, pluralidad de roles y corresponsabilidad.

k. Presentar públicamente junto al titular del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa -y resto de socios que en su caso cuente el proyecto- los detalles y alcance del proyecto subvencionado, en los términos y formatos que ambas partes convengan. Se garantizará que, sin perjuicio de la presencia de otros miembros de la Diputación, un/una representante del departamento concedente de la subvención ostente la representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa en los actos formales vinculados a la promoción de este programa. Del mismo modo se analizará la conveniencia de realizar un balance público del resultado de la colaboración o del propio proyecto, al término del mismo.

l. Y, en general, cumplir cuantas obligaciones se señalan en el artículo 13 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.

**Quinto.-** Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento en que se haya efectuado el pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los siguientes supuestos:

1. Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida.

2. Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente.

3. Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero señaladas en la letra e) del apartado anterior.

4. Y en general, cuando se dé alguno de los casos que para el reintegro de subvenciones se señalan en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.

Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público.

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

**Seigarren.-** Zuzendari nagusiari dagokio, ezarritako egutegiaren arabera, dirulaguntzaren ordainketa guztiak egitea, dirulaguntzaren azken ordainketa barne, eta foru diputatuaren esku geratuko dira hura itzultzeari edo guztiz baliogabetzeari buruzko gaiak.

**Zazpigarren.-** Nolanahi ere, Foru Ebazpen honetan aurreikusten ez den guztian 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzak arautzen dituenak, xedatutakoa beteko da eta bera garatzen duen erregelamenduak xedatutakoa, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak.

Foru Agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, foru agindu honen aurka **administrazioarekiko auzi errekurtsoa** aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita **bi hilabeteko** epean. Bide hori erabili aurretik, **berraztertzeko errekurtsoa** aurkez diezaiokete partikularrek Departamentuko foru diputatuari, aipatutako egunetik hasita **hilabeteko** epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein aurkez daiteke.

**Sexto.-** Corresponde a la directora general, según el calendario acordado, realizar todos los abonos de la subvención, incluido el abono final de la misma, quedando en manos del diputado foral las cuestiones relativas a su reintegro o anulación total.

**Séptimo.-** En todo caso, en lo no previsto en la presente Orden Foral se estará a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el Decreto Foral 24/2008 de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo los interesados interponer contra la misma **recurso contencioso-administrativo** ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de **dos meses** desde el día siguiente al de su notificación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía los particulares podrán interponer **recurso de reposición** ante esta Diputada Foral en el plazo de **un mes** desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

| **Digitalki sinatua** / Firmado digitalmente por: | |
|---|---|
| | **Goizane Alvarez Irijoa**<br><br>**Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua**<br>Diputada foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes |

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

# Sinadura laburpena
# Resumen de firmas

FA-KG-2025-0355

Izenburua | Título:

Diru laguntza izenduna ematea_Beasaingo parrokia
Concesión de la subvención nominativa_Parroquia de Beasain

Ondoren dokumentu honetan erreferentzia egiten den foru agindu originalaren sinadura datuak erakusten dira.
A continuación se muestran los datos de la firma de la orden foral original a la que hace referencia este documento.

**Sinatzailea | Firmante:**ALVAREZ IRIJOA, Goizane

**Data | Fecha:**2025eko uztailaren 1ean

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.



[redacted]
EKS | CSV: [redacted]
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv*